

# Euskal Hezkuntza Sistemak izan behar du

## OINARRIZKO PRINTZPIOAK

### 1.Unibertsala.

Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.

### 2.Euskara eta euskal kultura ardatz dituen.

Benetako murgiltze eredia gauzatuko duena, oraingo hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diona euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direl.

### 3.Euskal Curriculumetik eraikia.

Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

### 4.Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.

Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu

komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ikastetxeen arteko lankidetzak-hitzarmenak bultzatuko dituena.

## HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

### 5. Hezkidetzan oinarritua.

Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailerik gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.

### 6. Laikotasunean heziko duena.

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko dituena, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.

### 7. Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.

Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituena: Euskaldun konprometitu eta eleanitzak; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.

### 8. Inklusiboa.

Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituena. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituena, euren beharrak erdigunean jarrita.

## HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

### 9. Gobernantza demokratikotik antolatua.

Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.

### 10. Ikastetxeei autonomia aitortuko diena.

Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.

### 11. Publiko-herritar eredutik sortua.

Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituena.

## ONARRIZKO PRINTZIOAK

### 1. Unibertsala.

Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.

**XXI. mendean** gure hezkuntza-sistemak bermatu beharko duen lehenengo gauza da Euskal Herrian bizi diren orok, hots, euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarrizko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubideetan oinarrituta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitan edota ikas-arlotan ikasteko eskubidea dutela, eta ez dela inor baztertuko arrazoi politiko, ekonomiko eta sozialengatik, ez eta

jatorriarekin edo sexuarekin lotutako arrazoiengatik edota arrazoi ideologiko, akademiko, fisiko edo psikikorengatik ere.

Hezkuntzari dagokionez, eskubide unibertsal gisa, hauek izan dira mendebaldeko Europako hezkuntza-sistemen ezaugarri historiko komunak:

- Hezkuntza hiritarren eskubidea da eta, beraz, Estatuari dagokio guztiei eskubide hori bermatzea eta antolatzea, eskubide horrek hartuko dituen moduak kokatzen garen estatu motaren arabera izango badira ere.
- Hezkuntza nazionala Estatuaren boterearen zutabeetako bat da, eta, hori segurtatzeko, doakotasuna bermatuta egon behar da.
- Irakasleak antolatzeko eta kudeatzeko ahalmena Estatuak beretzat gordetzen dituen eskumenetako bat da, irakaskuntza homogeneizatzeko helburua duena.
- Hezkuntza hizkuntza batean edo beste batean garatzen da, eta aukera hori ez da neutroa. Hau ere ondotxo dakigu.

Mendebaldeko European adostasun zabala dago hezkuntza herritarren eskubidetzat hartzeko orduan, eta Estuari eskubide hori guztiei bermatzeko eta antolatzeko betebeharra esleitzerakoan. Hala ere, estuari zerbait gehiago eskatzen zaio: Hezkuntzak berdintasun, inklusio eta kohesio sozialaren helburuei erantzutea.

#### Berdintasuna

Izatez esanahi argia duten helburu horiek eztabaida sakona eragiten dute hezkuntza-munduan, eta, bereziki, berdintasun kontzeptuak. Berdintasuna aukera-berdintasunarekin edo emaitzen berdintasunarekin lotuta egon daiteke.

Ikus dezagun. Antza denez, oso barneratuta dago aukera berdintasunaren ideia edo meritukrazia, zentzu hertsian hartuta, ez dela oso defendagarria. Horrek esan nahiko luke formaziorako aukera berdintasuna badagoela, baina baita etengabe lehiazteko aukera ere.

Hau da, arrakastarako itxaropenak zabaltzen dira, bai, baina, definizioz, batzuek baino ez dute arrakasta lortuko. Eta horrek, era berean, emaitzetan desberdintasun handiak sortuko lirakeela esan nahi du.

Are gehiago. Hezkuntzaren arloan pertsona asko ari dira esaten emaitzetan berdintasuna izateak konformismoari egiten diola mesede, sormenaren, dibertsitatearen eta bikaintasunaren kaltetan.

Orduan, zer ulertu beharko litzateke berdintasuna esaten dugunean? Berdintasuna inklusio gisa ulertu behar dugu, desberdintasunen konpentsatzaile gisa, eta desberdintasuna, aldiz, baztertze gisa. Inklusioaren oinarrian, zentzurik zabalenean, hiritarrak daude, eta baita gizarte bateko kide guztiek izan behar dituzten eskubide eta betebeharrak zibil eta politikoak, eta baita horiek espazio publikoan izan beharreko egokierak eta integratzeko aukerak ere. Desberdintasunak konpentsatzeak, edo aukerak berdintzeak, esan nahi du ikasle bakoitzari berea, egokituta ematen zaiola, bakoitzari bere erritmoa errespetatuz, baztertzea eta marjinatzea galarazteko eta berdintasunerako aukerak ahalbidetzeko.

Horrenbestez, gure gizartean desberdintasun ekonomikoa eta soziala errealitate eztabaiaezina delarik -berebat, lehiari berezkoa zaion emaitzen desberdintasuna-, berdintasuna izango da, hezkuntzaren eremu pribilegiatuan desberdintasunen konpentsatzaile den heinean, jakituria partekatu batera iristeko gaitasuna lortzeko aukera emango diena herritarrei, bakoitzari bere bokazioari ondoen dagokion mailaren eta espezifikotasunaren zein esfortzurako borondatearen arabera. Izan ere, horren bidez gaitasuna lortuko du espazio publikoan aukerak bereganatzeko eta bertan integratzeko, eta ez soilik lehia hutserako.

### Hezkuntzaren kalitatea

Gizarteak estatu sozialari bestelako eskaerak egiten dizkio bermatu behar duen hezkuntzari dagokionez, eta eskaera horiek askotarikoak

eta konplexuak dira, eta hezkuntzaren kalitatearen kontzeptuan batzen dira.

Hezkuntzaren kalitatearen oinarrian, hezkuntza sistema baten elementuen eta ezaugarrien multzoa dago, sistema horrentzako ezarritako helburuekin bat datozen emaitzak lortzeko aukera emango dutena. Kalitatea ez da berez definitzen; aitzitik, gizarte talde batek hezkuntza sistema baten bidez lortu nahi duen xedearen arabera neurtzen da, eta, ondorioz, gizarte bakoitzak hezkuntzaren xedeei buruz duen kontzepzioari lotuta dago.

Oro har, beraz, hezkuntzaren kalitatea bere helburuen betetze mailaren araberakoa dela esan dezakegu, helburu horiek sozialak zein teknikoak direlarik, eta, horrenbestez, esan dezakegu hezkuntza sistema batek ikuspegi sozialetik helduta kalitate ona duela, baldin eta bazterketaren eta marjinazioaren kontrako prebentzio neurriak hartzen baditu; are gehiago, hainbat korronteren iritziz, kalitatearen adierazle nagusia hezkuntzarako eta berdintasunerako eskubideak asetzea baita.

### Baliabideak

Estatu garatuetako gizarteak gero eta kalitate handiagoa eskatzen du hezkuntzan, eta, horretarako, hainbat neurri hartu beharko dira. Hala nola: ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua murriztea; teknologia berriak erabiltzea; irakaslearen etengabeko prestakuntza lantzea, ikastetxeei behar besteko baliabideak eta baliabide horiek lortu nahi diren helburuei egokitzeko gaitasuna ematea; hezkuntza prozesuak etengabe aztertzea eta ebaluatzea, eta hori egiteko gaitasuna ematea, emaitzak teoria eta praktika hobetzeko erabili ahal izateko; behar besteko autonomia izatea, bai ikastetxeetan bai hezkuntza sistemetan, eta autonomia hori administratzeko gaitasuna izatea; eta dibertsitatea zaintzeari buruz jarduera zehatzak existitzea.

Hezkuntzaren kalitatearen eremua hezkuntza sistemaren eragingarritasunaren adierazlea ere bada, eta, horregatik, ebaluazioaren kontzeptuari lotuta doa ezinbestean; horren baitan, sistemak egiten duena eta lortzen dituen emaitzak sartzen dira, helburu bikoitzarekin, hau da, alde batetik, kalifikatzea eta azalpenak ematea, eta, bestetik, sistema bera hobetzea.

Egoera horretan, hezkuntzaren kalitatea ezin zehatz neurtu bada ere, hainbat adierazleren bitartez bai balora daiteke, eta horiek alderdi kuantitatiboak zein kualitatiboak neurtuko dituzte. Aukeratzen diren adierazleei begiratuta, antzemango da hezkuntza sistema bati exijitzen zaion kalitatearen ezaugarria zein den.

Lehenago esandako helburu guztiak betetzearren, ezinbestekoa da, alde batetik, hezkuntzan inbertsioak handitzea eta, bestetik, baliabide materialak optimizatzea.

## 2. Euskara eta euskal kultura ardatz dituen

Benetako murgiltze eredu gauzatuko duena, oraingo hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diena euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.

**Euskal Herriko** ikasleen euskara ezagutza eta kalitate mailek behera egin dute. Kezkagarria da, zeharo, kanpo ebaluazioen emaitzek erakutsi diguten argazkia. Gero eta ikasle gehiago D ereduan matrikulatuta egoteak ez duelako, inondik ere, haien euskara mailaren gutxieneko garapena ziurtatzen.

Hezkuntza eragileen artean adostasun handia dago ikasleek lortu behar duten euskara mailari dagokionez: Lehen Hezkuntza amaitzerakoan, gutxienez B1 maila; eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan, B2 maila. Helburu hauek lortzeko beharrezkoa da neurriak hartzea. Ezinbestekoa da hizkuntz ereduak desagertzea eta ikastetxe guztietan euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokorra ezartzea; hau da, murgiltze eredu ezartzea. Ikastolok argi dugu: benetako murgiltze eredu bat behar dugu; ezin dugu irudikatu aldaketa hau jasotzen ez duen hezkuntza akordio edo legerik.

Ikasle guztiek lortu behar dute aipatutako gutxieneko euskarazko gaitasun maila, derrigorrezko hezkuntzaren amaierara baldintza berdinetan heltzeko, abiapuntua/bizilekua edozein dela ere. Konponbidea ez da baldintza soziolinguistiko makurragoa duten eremuetan gaitasunak jaitea. Kontua da, berdintasun-printzipioa bermatzeko, ikasleek maila eta gaitasun berdinak eskuratzeko bidean jartzea eta gutxiago duenari gehiago ematea; hau da, baliabide berezituak jartzea, ikasle guztien arteko berdintasuna bermatzeko. Erabat desagokia litzateke ikastetxea kokatuta dagoen eremuak edo ikastetxeak duen errealitate soziolinguistikoak ikasleen gaitasunak moldatzeko aukera zabalik uztea. Horrek ikasleen arteko berdintasun-printzipioarekin talka egingo luke.

Zalantzarik gabe, murgiltze eredu orokortzeak bakarrik ez du lortuko belaunaldi berriek hizkuntza gaitasun egokia izatea. Aitzitik, beste hainbat neurri ipini behar dira indarrean...

- **Administrazioak** behar diren baliabideak bermatu behar dizkie ikastetxe guztiei.
- **Eleaniztasunaren** izaera eta ezaugarriak jendarteratuko dituen diskurtsoa zabaldu behar da: hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzaren planteamendu berri horretan euskarari lehentasuna ematearen abantailak eta alde onak azpimarratu behar dira.
- **Ebaluazio** sendo bat behar da; alde betetik, jakiteko zein den gure ikasleen euskara maila derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, eta, bestetik, tarteko ebaluazioen bitartez, sistema eraginkorra ezartzeko, emaitzak hobetzeko eta jarritako helburuak lortzeko hartzen diren neurrien jarraipenerako. Ebaluazioa aipatzen dugunean, norabide batean aurreikusten dugu: hobekuntzarako ebaluazioa, hobekuntzarako aukera.
- **Ikastetxeko** hizkuntza proiektuari zentralitatea eman behar zaio. Bertan arautzen dira hezkuntza-komunitatearen

harremanak zein ikaskuntza-prozesua, hizkuntza bakoitzak eskola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definituz. Horretarako, Administrazioak ziurtatu behar ditu onartutako ikastetxe guztien Hizkuntza Proiektuak gauzatzeko behar beste baliabideak.

- **Kompetentzietan** oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, hizkuntza kompetentzia, diziplina kompetentzia izateaz gain, oinarritzko zeharkompetentzia bat da; ondorioz, hezkuntzaren zutabe nagusi bezala tratatua izan behar da, azken batean giza garapenerako tresna nagusia baita, eremu guztietan eta egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Izan ere, kompetentzia soziolinguistikoaren garapena giltzarri da, besteak beste, hizkuntza hautu kontzienteak egin ahal izateko. Kompetentzia komunikatiboa lantzearen ardura hizkuntza-irakasleetatik harago doa. Hala, hizkuntza-irakasgaietan bezala, ezinbesteko izango da gainerako arloetan ere hizkuntzak kudeatzeko eta arloen bidez komunikazio gaitasuna –euskararena, bereziki– lantzeko helburuak fintzea, planifikatzea eta metodologia berriak txertatzea. Marko pedagogiko honetan, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren xedea dugu ikasleen komunikazio-kompetentziak garatzea, hizkuntza erabil dezaten bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa.
- **Eskola komunitatearen** motibazioa eragiteko ekintzak, sugestioa eta diskurtsoa ezinbestekoak dira, eta azken urteetan indarra galdu dute. Ezagutza lantzeko ardura izateaz gain, erabileran eragiteko daukan erantzunkizunaz ere jabetu behar da eskola komunitatea. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua familiek babestu behar dute, seme-alaben garapen eleanitzaren aspektu guztietan inplikatu eta proiektuaren protagonista sentitu. Eremu guztietan euskararen erabileraren

garrantzia zabaldu behar da; eskolaz kanpoko jardueretara, aisialdira, hau da denbora ez formalera ere eraman behar da. Hezkuntza sistemako ikasle askok euskara maila “nahikoa” lortzen dute, eta maila horrek euskaraz esaten den guztia ulertzeko balio die, baita euskarazko irakasgaiak gainditzeko ere. Baina ez da nahikoa euskaraz bizitzeko; ez da nahikoa euskara bizitzaren arlo guztietan erabiltzeko. Horretarako, maila handiago bat lortu behar dute; maila handiago bat behar dute erraztasunez hitz egin ahal izateko, gustora, lasai... eta honetan ere erlaxazio bat egon da. Gizartearen zati bat seme-alabek derrigorrezko hezkuntza euskararen ezagutza “nahikoa” lortuta amaitzearekin konformatzen da, gero, gehiago behar badu, ikasiko dutelakoan. Berdin zaie zein hizkuntzatan bizi diren seme-alabak.

- **Horregatik ezin dugu ahaztu** hezkuntzako ikasteredurik euskaldunenek, agian murgiltze ereduak ere, ez dutela ezer askorik balio euskaldun aktiboak sortzeko orduan, hiztun horien hezkuntza euskalduna ez baldin bada. Euskalduntzeko, euskara ezagutzeaz gain, euskal gizartean sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak jaso behar dira. Horrekin batera, XXI. mendeko euskaldunak hezi nahi baditugu, euskaldun gaurkotuak, behar berriei egokituak eta aurrerapenetan txertatuak behar ditugu, eta, horretarako, Euskal Curriculum behar dugu. Sekulako garrantzia edukiko du euskara indarberritzeko eta normalizatzeko.
- **Ikasleen arteko** harremana euskaraz izatea lortu behar dugu, beraiek hautu hori egiterakoan, emozioen bidez, euskararekiko, eta euskal kulturarekiko eta euskaltzaletasunarekiko atxikimendua garatu dezaten, eta ikus dezaten euskara beren garapen pertsonalerako oinarritzko elementu izan daitekeela.
- **Ikasleen hizkuntza** ohituretan eragiteko, fokua altxatu beharra dago; ikasleak ikastetxeen ingurunean dauden elkarte eta

eragile ezberdinekin lankidetzan jartzeak indartu dezake ikasleek euskararekiko duten pertzepzioa. Ikasleak testuinguru errealetan lanean jartzeak lagundu dezake arlo honetan urrats kualitatibo bat egiten.

Jakina, honetan hezkuntza sistema ez da errudun bakarra. Euskarazko kultur erreferentziek behera egin dute gero eta mundu konektatuago honetan; haur eta gazteen komunikatzeko eta kultura kontsumitzeko ohitura berrietan euskarazko kultur eskaintza ur tantak dira ozeano handi batean, kultur erakundeek duela hilabete askotatik hona ohartarazten ari diren gisan. Ordua, da, beraz, hezkuntzak, kulturak eta euskalgintzak bat egin eta herri gisa erantzuteko erronka handi honi.

Bestetik, gero eta haur gehiago ari dira iristen gure ikastetxeetara matrikulazio garaitik kanpo; atzerritar jatorrikoak dira ia denak. Ez dakite euskaraz hitz egiten, eta, gainera, beren familia askok hizkuntza eta kultura hegemonikoen eredura jotzen dute eta eskola batzordeek, nabarmenki Araban, kasu askotan bideratu dituzte A eta B eruedetara.

Bi faktoreok arriskutsuak dira euskalduntze prozesuak aurrera egin dezan, eta neurririk hartu ezean urteetan atzera egin genezake. Bigarrengeari dagokionean, gainera, gizarte segregazio arriskua dugu eta baita hizkuntza segregazio arriskua ere. Ezin dugu ahaztu atzerriko jatorria duten ikasleek gizarteratzeko eginbidean, hizkuntza ereduen sistema hautespen eta baztertze bidea bihurtu izan dela; beraz, segregazioei aurre egiteko hizkuntza ereduak gainditu behar dira.

Gure ustez, euskara, hizkuntzak orokorrean, integratzeko, gizarteratzeko tresna bihurtzen dira, ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gainditzeko balio dute eta gizarte kohesioa eta ikasleen aukera berdintasuna lortzeko bide.

Baina, argi gera bedi, Ikastolak ez ditugu mehatxutzat faktoreok; erronka gisa hartzen ditugu. Bi gai hauek herri apustu bat dira. Euskal Herri euskalduna nahi dugu, eta kanpotik datozenak gure herrian txertatu nahi ditugu, inklusioaren bitartez. Ikastolak argi dugu ikasle

etorri berriak gurean integratuko badira, euskaratik eta euskal kulturatik integratuko direla. Hori da gure apustua.

Lehen esan bezala, horretarako ezinbestekoa dugu baliabide gehiago edukitzea, erronken araberrako baliabideak edukitzea gure hezkuntza sistemak, bata zein bestea herri apustu baitira eta biek eskatzen baitute esfortzu berezi bat irakasleen aldetik. Erronka hauei aurre egiteko behar diren neurriei estaldura juridiko-politiko emango dien akordio bat, Hezkuntza Akordioa, ere beharrezkoa dugu. Eta akordio hori garatzeko beharrezkoa da Hezkuntza Lege berri bat.

Gerora begira, argi eta garbi gelditu da bide berriak aztertu eta asmatu beharko ditugula, bakarrik edo beste eragile batzuekin elkarlanean. Harago joateko, euskara benetan biziberritzeko, oso garrantzitsua izango da euskara eta euskal kulturako beste eragile batzuekin elkarlanean aritzea, baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailekin ere.



### 3.Euskal Curriculumetik eraikia.

Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

**Herri batek** eskubidea izan behar du bere hezkuntza sistema sortu eta garatzeko eta bide horretan ezinbesteko osagai bezala ulertzen dugu Curriculumak. Hezkuntzaren xedea aintzat hartuta, horren gauzatzea gerta dadin tresna eraginkorra da Curriculumak. Curriculumak eskola antolaketaren funtsa da, hezkuntza proiektuari erantzuten dion antolaketa egitura definitzen du. Hezkuntza proiektuan zehazten diren oinarri psikopedagogikoak aintzat hartuz, ikastetxeak egiten duen eskaintza guztia baldintzatzen duen dokumentua. Ondorioz, Curriculumak garapen maila ezberdinak izan behar ditu.

Curriculum orokorrak, hezkuntza sistema horri dagozkion oinarritzko definizioak eskaini behar ditu; beste era batera esanda, ikaskuntza prozesu bat osatzen duten osagaien multzoa da: konpetentzien definizioak, horien osagaiak eta beste zehaztu behar ditu. Lehen zehaztapen maila bezala ulertzen dugun atala da berau, hezkuntza

ulertzeko moduari erreferentzia egiten dion atala, alegia. Atal honek, hezkuntzaren gaineko ikuspegia jasotzen duen heinean, komuna izan behar du sistema osoarentzat, hezkuntza komunitate bakoitzaren errealitateak nabardurak sortu baditzake ere. Kontzeptu konplexua da, besteak beste, gizartearekiko eta komunitatearekiko loturak, oinarri psikopedagogikoak eta hezkuntzaren esku-hartzea eta irakaskuntza-praxia, oro har, zehazten duen dokumentua baita.

Hezkuntza Curriculumaz hitz egiten dugunean, hezkuntza proiektuaren zehaztapenetaz ari gara; hau da, landu beharreko konpetentziak eta helburuak zehazten dira, egiten diren hautu metodologikoak jasotzen dira eta ikastetxeak ebaluazioaren inguruan hartutako erabakiak biltzen ditu. Horrez gain, guzti horiek lantzeko testuinguruak zehazten dira eta ikastolaldian zehar ikasleek landuko dituzten edukiak ere definitzen dira modu sekuentziatu batean.

Azken finean, Curriculum proiektuan jasotzen da ikasleekin, pertsonekin, lanean ari garenean zer, noiz eta nola egingo dugun. Horrekin batera, ebaluazio markoaren, ebaluazio prozesuaren zehaztapenak ere jasotzen ditu. Honenbestez, ikas-eremuan (izan ikasgelan edo bestelako ikaskuntzarako testuinguruetan) lantzen dugun guztia jasotzen da, eta lanketa hori zein begiradatik, zein ikuspuntutik egiten den ere bai. Gure komunitateko kide diren guztiei zein ikaskuntza esperientzia eskainiko dizkiegun zehazten dugu bertan, beti ere, Hezkuntza Proiektuan jasotzen diren oinarri psikopedagogikoak aintzat hartuta eta definitzen den pertsona eredu edota irteera profilari erantzunez. Ondorioz, Curriculum propio bat izatearen garrantzia azpimarratu behar dugu hezkuntza sistema propio baten eraikuntza eta garapenerako.

Tokian tokiko errealitatea jaso behar du Curriculumak, Euskal Herriko errealitateetik abiatuta, herri, auzo edo hiriguneko bizitzaren ezaugarriei erantzun behar dio. Izan ere, Curriculumak hizkuntza eta kultur transmisiorako gakoa den dokumentua da. Gizarte anitz eta globalizatu batean bizi gara, eta gurea bezalako herrialde eta

komunitate batek hezkuntza eta curriculuma behar ditu gurea den hizkuntza, kultura, izaera eta bizimoduaren etorkizuna bermatzeko. Adibide batekin irudikatzeko, matematika arloan, eragiketak egiten ikasi behar dute ikasleek, eragiketa horien bidez arazo eta egoera ezberdinei erantzuna emateko. Valentzian ere ikasi beharrekoak dira eragiketak, baina horiek lantzen diren testuingurua eta irudikatzen duten errealitatea ezin da berdina izan, bakoitzak bere nortasun eta egoera propioak bizi dituelako bere egunerokoan eta horiei erreferentzia eginez lan egin behar dugulako.

Herri batek zehazten duen Curriculumak irekia izan behar du, hau da, izaera orientatzailea izan behar du eta aipatutako tokiko berezitasunak jasotzeko aukera eskaini behar du. Ez da dokumentu itxi bat, moldagarria eta aberastu beharrekoa izan behar du. Ikastetxeak daukan autonomia baliatu behar du Curriculum hori bere egin eta behar edota nahi espezifiko horietara moldatzeko.

## 4. Euskal Herria bere osotasunean landuko duena

Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ikastetxeen arteko lankidetzak hitzarmenak bultzatuko dituen.

**Aitor dezagun:** gure gizartearen zati batentzat gai hau ez da lehentasunezkoa; zera sinboliko batera mugatzen da, eta *desideratum* urrun gisa baino ez da aipatzen askotan. Errealitate hori are nabarmenago agertzen zaigu Euskal Herria osatzen duten lurralde bakoitzeko gizartearen irakurketa egiten badugu, edo askotariko errealitate administratiboen arteko harremanen zailtasunei erreparatzen badiegu. Hau da errealitatea: Gure Hezkuntzaren lege-kudeaketa bi Estaturen eta hiru hezkuntza-administrazioen esku dago.

Gure helburuak kontuan harturik, dena den, ikastolen iritziz badago zereginik; aipatutako errealitatetik abiatuta, pausoak eman daitezke eta eman behar dira. Zentzu horretan, zinez interesgarriak zaizkigu Telesforo Monzon Lab-ek egindako bigarren Naziometroaren hainbat ondorio: euskal gizartearen gehiengo batek Euskal Herria zazpi

lurraldez osatutako eremuarekin identifikatzen du (%41), gainontzeko aukerak askoz emaitza txikiagoak izanik; bestalde, lurraldeen arteko harremanak estutzeko nahia oso handia da (%87), eta datu hori Hezkuntzara ekartzen badugu, %55ek adierazi dute harreman horietan harago joateko nahi hori.

Zergatik ez sakondu bide honetan, beraz? Ikastoletan eta beste esparru batzuetan pausoak eman dira, eta esperientzia horrek bi ondorio ekarri dizkigu: batetik, ez da beti erraza *desideratum*-etatik errealitateetara igarotzea, ikuspegi eta pentsaera berri batekin aritu ezean. Bigarren ondorio bat ere atera dugu, ordea: posible da. Eta, posible ez ezik, aberasgarria eta onuragarria ere bada, eta hori egindako bideak berak erakusten digu.

Agerikoa da ezin dela alde batera utzi errealitate administratibo ugarien ebidentzia, eta, adibidez, EAEn bakarrik landutako Lege batek ezin duela errealitate horren ginetik egon. Hala ere, ikastolok uste dugu gure gizarte osoan dagoen nahi hori bideratzeko ahalegina egin beharra dagoela. Nola egin? Gure iritziz, bi bide edo lan arlo ahalbideratu beharko lituzke aipatutako Legeak:

- **Arlo pedagogikoan,** dauden ikastetxe guztien arteko harremanak bideratuz, ikastetxeen arteko sareak hedatzea bultzatuz, dauden askotariko esperientziak trukatzeko aukerari lehentasuna emanaz. Bakoitza bere errealitatetik abiatuta, elkarlan hori posible da: ikastoletan, gure jardunean, esperientzia handia dugu gai honen inguruan, Euskal Herri osoko ikastolen artean, gure eguneroko esperientziak, beharrak, lehentasunak... partekatzen ditugu. Ez da erraza, bakoitzaren egoera soziolinguistikoa eta administratiboa ezberdina delako, baina, ezberdintasun horiek alde batera utzita, gauza asko ere parteka daitezke, baita batak besteari ekarpenak egin ere: Euskal Curriculum oinarri hartuta gure ikasleen irteera profilak aztertu, euskararen egoera eta zabaltzeko estrategiak landu egoera bakoitzaren

arabera, oinarri pedagogiko ezberdinen inguruko eztabaidak, metodologiak ... Asko egin daiteke: denontzat baliagarriak diren estrategiak eta dinamikak aurkitzeko esperimentatu egin behar da proba-hutsegiteen bidez. Administrazioen aldetik ahalbideratu eta bultzatu egin beharko lirateke ekimen hauek, sare horiek bideratuta, behar diren baliabideak eta bideak helburu horren zerbitzura jarrita.

- **Egituraketa alorrean**, eskumen ezberdinak dituzten hiru esparruren aurrean gaudenez, horien arteko elkarlana bideratzeko tresna berri batzuk martxan jartzeko aukera eman beharko luke Legeak. Zentzu horretan, ikastoletan badugu bide bat jorratua, Elkartasun Kutxa deitzen dioguna. Honetan datza: urtean behin elkartzen gara Euskal Herriko ikastola guztiak, denon artean behar berezienak dituztenak eta ikastola guztientzat estrategikoak diren proiektuak zein diren erabakitzeko, eta horiei denok egindako ekarpenak bideratzeko. Horrekin batera, urte osoan zehar, modu iraunkorrean elkarlanerako eztabaida eta erabaki guneak eraikitzen ari gara Ikastolen Elkartaren baitan.

Jakina, Euskal Hezkuntza Sistema baterako proposamenak zabalagoa behar du izan, ikastoletara mugatu gabe. Euskal Herriaren ikuspegi integraletik begiratuta, erronkak biderkatu egiten baitira. Horra batzuk: zer egin eta nola bultzatu euskarazko irakaskuntza eremu ez euskaldunetan? Nola bideratu aniztasuna Iparraldeko ikastetxeetan? Nola orokortu euskarazko irakaskuntza Iparraldeko ikastetxeetan, eta ez bakarrik ikastoletan?

Gure ustez, badago bide erreal eta posible bat: Europar markotik abiatuta, eraiki dezagun Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuko duen hezkuntza erakunde bat, partzuergo bat, non hiru eremu administratiboetako erakundeek eta, horiekin batera, entitate kooperatibo, herritar eta pribatuek ere parte hartuko duten, denontzat estrategikoak diren proiektuak bideratzeko balio dezakeena. Baditugu

arazo komunak, Europa barruan herri bezala ditugunak, hain zuzen, eta, konbentziturata gaude, horiei denon artean eta elkarrekin egin behar diegula aurre. Euskal Herri gisa ditugun aukerak baliatu behar ditugu, gure beharrei ahalik eta erantzun gehien Europako eremuan bilatuz.

Hemendik 10-15 urte zer nolako hezkuntza sistema, zer nolako Euskal Herria nahi dugun pentsatzeko une erabakigarrian gaude, eta gure egiturazko beharrei aurre egiteko, pentsaera eta lan molde berriei begiratu behar diogu gure etorkizunari. Ez gara ari bakoitzaren eremutik abiatuta beste bati laguntza bat edo bestea emateaz, denon artean eztabaidatu, adostu eta garatutako etorkizuna eraikitzeaz baizik. Eman diezaiozun gaurtik biharkoari bide. Egin dezagun gaurtik biharko bidea.

## HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

### 5. Hezkidetzan oinarritua

Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailearik gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.

**Ikasleei tresnak** eskaini nahi dizkiegu beren bizitza proiektua aukeratzeko, askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailearik gabe, berdintasun-eza identifikatuz, haren aurka borrokatuz eta berdintasun-eskubidea gauzatzen ikasiz (besteak beste, kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruan).

Hezkidetzak da genero-aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko elementu nagusia, eta **ikastetxea**, funtsezko eragile sozializatzaile gisa, ikasleen artean botere-harremanak eraldatzen laguntzeko berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko tresna da. Era berean, espazio egokia da ikasle guztiak sozializatzeko dauden sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuan.

Hala ere, **ikastetxeak**, berez, ezin dio erronka handi horri berak bakarrik aurre egin, gizarte osoaren inplikazioa beharko da, eta horretarako estrategia desberdinak landu beharko ditu.

Hezkidetzak, besteak beste, ikasleekin landu beharreko arlo edo oinarri desberdinak jasotzen ditu: sexismoaren aurrean pentsamendu kritikoa lantzea; gizakiaren historian zehar alor guztietan emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa balorean jartzea; hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista lantzea eta aritzea; berdintasuneko hezkuntza afektiboa eta sexuala lantzea; hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez eta elkarbizitza positiboa oinarri, gatazken eraldaketa baketsua bultzatzea; **ikastetxeko** ohiko jardueretan, eskolaz kanpokoetan eta jarduera osagarrietan espazioaren banaketa harreman berdinzaleagoak eta erabilera bidezkoagoa bultzatzea; ikasleen autonomia pertsonalean, etxeko eremuan, arreta jartzea; eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan ikasleak sentsibilizatzea.

**Ikastetxeek** hezkidetzaren aipatutako arlo horiek barnean hartuko dituen ekintza sistematikoak garatuko dituzte; horren bidez, berdintasuneko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio bikaina izango dira. Emakumeak zein gizonak berdintasunik gabeko gizartean hezi gara, eta gizarte horrek markatu du gure izateko modua; berdintasuna, beraz, hezkuntza kontua da.

**Ikastetxe** bakoitzak hezkidetzaren oinarriak aintzat hartu beharko ditu azterketa, analisisa eta praktikan jartzeko; hartara, berdintasuna eskolatzaren lehen urteetatik ikasgelara eramateko lan sistematikoa egin beharko du. Adin bakoitzak, hezkuntza maila bakoitzak, ibilbide zehatza izango duenez gero, behar-beharrezkoa izango da irakasleak trebatzea hezkidetzaren gaiak haien ikasgelako testuinguruan aplikatzeko.

Hezkidetzak **ikastetxeko** eremu guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamendua eta gobernantza mailan— zeharkatzen dituen zenbait gai nagusi jorratzen ditu. Horregatik, **ikastetxeetan** hezkidetza eta berdintasun planak sustatuko dira, ikasle guztiei berdintasunean bizitzen ikasteko aukera emateko.

Helburua, **ikastetxean**, kirolean zein aisialdian eta familian, hezkidetza-balioetan oinarritutako inguruneak sortzen laguntzea izango da.

## 6. Laikotasunean heziko duena.

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko dituen, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.

**Ikastolen ustez** laikotasunak gizabanakoaren kontzientzia osoaren askatasuna bilatzen duen eskola-sistema da, eta, beraz, edozein doktrinamendu erlijioso edo ideologikotik urrun dagoen eskola-sistema. Eskola laikoa haurren autonomia moralaren bilaketa da.

Laikotasuna ez da erlijioaren aurkako balio bat, eta ez dio erantzuten ateismo edo agnostizismo inplizitu edo esplizitu bati. Laikotasunak pertsona orok, dituen ideien arabera, bortxatua edo diskriminatua ez izateko duen eskubideari erantzuten dio. Eskubide indibiduala da, ez sistema ideologikoa. Pentsamendu- eta kontzientzia-askatasuna erabiltzeko eskubidea da. Estatuak erlijio-konfesioetatik bereizteko betebeharra du, konfesio horiek, eta berauetan sinisten dutenek, pribilegiarik lor ez dezaten, pertsonen eta kolektiboen aurrean.

Laikotasuna gizabanako guztiei oinarrizko eskubideak bermatzen die, bereizketarik egin gabe. Neurri batean behintzat demokraziaren

oinarria bera dela esan dezakegu. Ikastolen ustez, hiru printzipio nagusitan oinarritu daiteke:

- Norbanakoaren pentsamendu- eta kontzientzia-askatasuna.
- Berdintasuna herritarren artean, ikuspuntu guztietatik: sinbolikoa, juridikoa, politikoa, etikoa eta espirituala.
- Gizarte zibilaren autonomia, elizak alde batera utzita, herritar guztientzako legeez hornitzeko, hau da, totalitarismoekin, fundamentalismoekin eta jarrera baztertzailaekin zero tolerantzia izateko.

Laikotasuna bizitzaren eta gizartearen ikuspegi humanistan oinarritzen da, gizabanakoa eta bere barne-sinesmenak dogmen gaineratik jartzen dituen filosofian. Aldi berean, anaitasunaren, elkartasunaren eta ekitatearen printzipioak dira.

Laikotasunak Estatuaren, erakunde eta zerbitzu publikoen eta herritarren emantzipazioa sustatzen du, baita irakaskuntzako esku-sartze ororena ere, dela erlijiosoa, dela beste edozein filosofiarena, hala nola arrazionalismoa, ateismoa eta abar.

Pentsamendu- eta kontzientzia-askatasuna, pertsona bakoitzaren kontzientzia askea laikotasunaren oinarrizko printzipioa da. Pertsona bakoitzak aske izan behar du erlijio bat aukeratzeko edo praktikatzeko, edo iritzi erlijioso disidentean parte hartzeko, edo uste sendo bat izateko, ateoia edo agnostikoa, edo axolagabea izateko. Askatasun horren eskubideak ezin du, inoiz, pertsonaren estigmatizazio sozial edo politikorik eragin (eta are gutxiago eskola-eremuan).

Kontzientzia-askatasuna funtsezkoa da, giza-askatasuna bezala. Kontzientzia-askatasuna erlijio askatasuna baino askoz zabalagoa da, gizabanako bakoitza bere kabuz libreki aukeratzeari baitagokio, bere intimitate espontaneoenean eta bere buruaz eta inguratzen duen munduaz egiten dituen analisisen arabera, komeni zaion edo behar duen aukera espiritual, moral edo etikoa aukeratzea.

Ezein erlijio-aitortzak, ezein filosofia ateok edo bestelakok ez du eskubiderik pribilegio publikoak izateko eta beste pentsamendu bat duten pertsonak jazartzeko. Eta hau guztia esanda ere, ez da esan nahi erlijioak ezagutu behar ez direnik. Erlijioek gure gizartearen zati eta historia dira; ezin dira ulertu pasarte eta bizitza asko hori ezagutu gabe. Zentzu horretan, bultzatu eta landu beharko genituzke erlijioen historia eta ezagutza. Hala ete guztiz ere, eskola-eremuan, ikasle batzuek edozein eratako erlijio-irakaskuntza jasotzeko duten eskubideak ezin die beste betebeharririk sortu nahi ez duten ikasleei, eta, beraz, erlijioen irakaskuntzak ez luke eskola-ordutegiaren eta derrigorrezko ordutegiaren parte izan behar ikasle guztientzat.



## 7. Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua

Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituenak: Euskaldun konprometitu eta eleanitzak; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetatsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.

**Hezkuntza sistema** osatzen dugun ikastetxeek Hezkuntza Proiektu (HP) propioak garatzea beharrezkoa da. HP horiek, bertako bizimodu, kultura, balore eta ezaugarri hertsiki lotuak egon behar dute. Beraz, HP bat eraikitzerakoan ezinbestean gure komunitateak bere buruari egin behar dizkion galderak hauek lirake: zer nolako gizartea eraiki nahi dugu? Hezkuntza gizarte eraldaketarako tresna gisa ulertzen badugu, zein balorez osatutako gizarte eredu eraiki nahi dugu? Zeintzuk dira gizarte horretan elkarbiziko diren pertsonen ezaugarri nagusiak? Honekin ez dugu esan nahi trokel beretik sortutako pertsona homogeneousak nahi ditugunik; bakoitzaren nortasun eta izaera errespetatu behar ditugu eta horien gainean garatu nahi ditugun ezaugarrien lanketa sustatu. Azken finean, gizartekide izango

garenok partekatzen ditugun balore eta ezaugarriez ari gara, eta horiek argi izatea ezinbestekoa da gure eskaintza eta esku-hartzea era koherente, integral eta integratuan zehazteko.

Ibilbide horretan, **Hezkuntza komunitatean** garatzen lagundu nahi dugun pertsona eredu bultzatu nahi ditugun baloreen planoan kokatzen da, eta ikasle profilar erreferentzia egiteaz harago, profesional profileen ere eragin behar du. Horrez gain, familientzako ere erreferentzia garrantzitsua dira: familia eta **ikastetxearen** arteko harremana definitzeko, **eskolan** lantzen denarekin lerrotatuta egoteko eta familia-eskolaren bidez zein bestelako egituren bitartez, beraien parte-hartzea sustatu eta bideratzeko esaterako.

Honek guztiak baldintzatuko du **eskola** bere osotasunean; antolaketa egitura, parte hartzeko foro eta aukerak, bilera sistematika, garatzen diren proiektuak, baliatzen diren ikasmaterialak, prestakuntza planak... Pertsona eredu jasotzen denari begira eta, ondorioz, ikasle profilar begira eraiki behar ditugu ikaskuntzarako testuinguruak eta ikaskuntza esperientziak beraiek ere. Komunitateko kide guztien esku-hartzea eta ikas-irakaskuntza prozesuak irudikatzen dugun profilar begira garatu behar dira. **Eskola** eremuan gertatzen den guztiak balore eta ezaugarri horien garapenarekin lotuta egon behar du, eta bertan jarduten dugun profesional guztiok argi izan behar ditugu lotura horiek guztiak, ikasleekin jardutean inkoherentziak saihestu eta apendizaiaren kontraesanak ekidin asmoz.

Noski, aurreko paragrafoetan aipatu dugun hori bermatzeko, ezinbestekotzat ikusten dugu ikasle profil hori ebaluazio ereduarekin lotzea. Era honetan bermatuko baitugu hezitzaile eta irakasleek fokua horretan jarriko dutela eta egunerokoan lortu nahi dugun hori presente izatea. Hala ere, pertsona ereduaren ebaluazioa, ikaslearen balorazioa egiteaz harago, ikastolaren hezkuntza proiektuaren ebaluazioa egiteko ere baliagarria izan behar zaigu. Gure eskaintza eta esku-hartzearen bidez, lortzen dugun eragina neurtu behar dugu,

hasierako hipotesiak baieztatzen diren ikusi eta beharrezko doikuntza eta hobekuntzak egin.

Unescoren arabera, ezagutzaren eta informazioaren gizartetik ikaskuntzaren gizarterako aldaketa batean gaude (2015). Ezinbestean hezkuntzaren xedea eta egitekoa berrikustera behartzen gaitu. Azken urteetan, ibilbide luzea egin dugu paradigma berri honi erantzun asmoz, eta ibilbide horretan ikasi dugu ezinbestekoa zaigula irteera profila zehaztuta izatea edota pertsona eredu ondo landu eta barneratuta izatea. Izan ere, informazioaren transferentzia egitetik, informazioaren kudeaketa, aukeraketa eta erabilera egitean trebatu behar ditugu ikasleak eta hezkuntza komunitateko kideak. Informazioa nonahi eskuratu ahal dugu eta gero eta informazio masa handiagoa dago; horrez gain, azkar iraungitzen da, beti sortzen da ezagutzen dugun hori atzean uzten duen jakintza berria. Kontutan izan behar dugu era digitalean bizi garela eta sare sozialek eta Internetek, oro har, bizimodua aldatu digutela eta egun "fake"aren zabalkunde fenomeno gero eta zabalduago dagoela. Beraz, ikasleak era kritiko batean jardun dezaten hezi behar ditugu, jasotzen dugun hori lehen begiradan geure ez egiten eta bere buruari galdera esanguratsuak eta sakonak egiten ere.

Ikastolen Elkartean Euskal Curriculumaren lanketa eta ezarpenerako egin ditugun urratsak nabarmenak izan dira, bertan jasotzen diren kompetentzia, eduki baliabide, ebaluazio marko eta bestelakoei erantzuten diegu dokumentuan zehazten den kosmobisio propio edota begirada propio horretatik. Garapen horretan, ikastolentzat zein hezkuntza sistemarentzat berritzaileak diren ikasmaterialak sortu eta baliatzen ditugu. Kompetentzietan oinarritutako hezkuntza gauzatzeko tresnak eskaintzen ditugu ikasmaterialen markoan zehazten den ikasle profilari erantzunez. Aitortu beharra dugu hasiera hartan definitu genuen Ikaslearen Irteera Profilak garapen ezberdinak izan dituela eta azken gogoeta honetan pertsona eredu definitzera eraman gaituela. Azken urte luzeetan aipatu dugu eduki baliabideak kompetentzien

lanketarako tresnak direla, ezagutzak beharrezkoak direla, baina benetan horiek baliatzen eta mobilizatzen jakin behar dugula. Diskurtso hau osatze aldera, esan dezakegu kompetentzien lanketak eta garapenak ere pertsona ereduaren eta ikasle profilaren zerbitzura egon behar duela; hots, balore eta ezaugarri horien garapenerako tresna bezala ulertu behar ditugula.

## 8. Inklusioa.

Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituen. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituen, euren beharrak erdigunean jarrita.

**Idea nagusia:** helburua ez da integratzea (gureganatzea) baizik eta bakoitzaren izaera errespetatuz eta mantenduz, euskal izaera onartzea eta bereganatzea (beraien ekarpenak onartuz eta gureganatuz)

Euskal herriko ikasguneetara etortzen diren atzerritar jatorria duten ikasleei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie. Ikasle horiek modu orekatuan eskolatuko dira hezkuntza-sareen eta eskolen artean. Dena den ezin dugu ahaztu hezkuntza aukera inklusiboak ikaslearen egoera desberdinak hartu behar dituela kontuan, ez bakarrik jatorri atzerritarra duten ikasleena: beharizan bereziko ikasleena, genero desberdintasuna, sexuarena, gizarte desberdintasuna, erlijioena ..., eskolak apendizaiarako beharizan-aniztasunari arretaz erantzun behar baitio.

Egungo eskolatzeredua eraldatu behar da, hots, ikasle zaugarri eta etorkinen kontzentrazioak ekidin eta aniztasunari erantzuteko

estrategia berri bat behar da. Eskolatzeko orduan bi printzipio errespetatu behar dira: alde batetik, herritar guztien aukera berdintasuna, baldintza berdinak bermatuz; eta, bestetik, hezkuntza eskaintzaren barruan ikastetxea hautatzeko eskubidea. Biak.

Bi printzipio hauek errespetatuz, irakaskuntza kalitatea eta ekitatea irabazle suertatuko direlakoan gaude. Bi eskubide horien bermea eskaturik (hezkuntza-eskubidea eta hautatzekoa), euskal hiritarrei erantzukizunez joka dezaten argibidea eman behar zaie.

Eskolatzeko prozedura bateratuak, familien kontsulta eta partaidetza eredu eraginkorrak egon behar dira. Horretarako Matrikulazio-bulegoak/eskolatzeko batzordeak behar dira. Gure estez gune independenteak izan behar dira, eta herriko edo eremu bakoitzeko eskola guztien ordezkariak eta administrazioak osatua eta bideratuak. Familia eta erabiltzaileei informazioa emateko funtzioa izango dute, horretarako, eskolen funtzionamenduari buruzko adierazle objektiboak baliatuko dituzte.

**Zerbitzu publiko baten nahitaezko ezaugarria informazioa ematea eta gardentasuna bermatzea dira.**

- Alde batetik ikastetxeek ematen duten argibidea egongo da. Kontrastatua eta kontrolatua izan dadin eska daiteke, baina garantiarik ez dago hala izan dadin.
- Bestetik, "gurasoentzako informazio-guneak" sortzea proposatzen da. Bereziki herri anglosaxoietan erabiltzen den metodologiari deritzogu egoki: gune independenteak dira eta eskolen funtzionamenduaren inguruko adierazle objektiboak argitaratzen dituzte.

**Matrikulazio epe arruntetik kanpo iristen diren ikasleen matrikulazioa.** Orain arte administrazio ezberdinek erabaki dute non matrikulatuko diren, Eskolatzeko Batzordeen bidez. Datuek diote ez dela ikasle horien eskolatzeko orekatu egin. Horregatik, Eskolatzeko Batzordeek ezin dute jarraitu teknikarien esku soilik. Hezkuntza eragileok ere egon

behar dugu, guztiok. Eskolatzeko batzordeak hezkuntza eragilez osatuta badaude eta irizpide nagusi bezala sareen arteko oreka ezartzen bada, aldaketa nabarmen bat egongo da, eta aurrerapauso bat emango da eskolatzeko modu inklusibo eta orekatuan izateko eta aniztasuna ziurtatzeko.

Ideia hauek kontutan izanda, ikastetxe guztiak behartuta egongo dira sozialki egoera zaugarrian dauden ikasleak era progresiboan jasotzera, beren eremuaren arabera dagozkien kopuruan, oreka bat ezarri arte.

Beste arlo batzuetan hartu beharreko neurriak:

**Urbanismoa:** Atal honetan hezkuntza eragileok gutxi egin dezakegu, arlo politiko orokorrean hartu behar dira erabakiak, hiriguneetan "gethoak" ez sortzeko. Hala ere, hori ezin bada ekidin, bi neurri hartu beharko lituzke Hezkuntza arduradunek:

- Eremu horietan dauden ikastetxeen arteko oreka.
- Baliabide berezien politika: integratzeko politikak ezartzeko behar diren baliabideak eskaini ikastetxe horietan. Administrazioak, arreta eman behar die profil sozioekonomiko baxuena duten eta bazterkeria arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei. Ikastetxe hauek beharrezko baliabideak jasoko dituzte.

**Harrera planak.** Ikastetxe bakoitzak bere harrera plana izan behar du. Aniztasunaren integrazioa ikastetxearen jardueraren ildoan izan behar da, eta beharrezko bidezko ikasleek ikastetxe guztietan tokia izan behar dute.

**Udalen parte-hartzea.** Segregazioaren arazoa ez da bakarrik hezkuntzarena, eta horregatik ikastetxeetako harrera planak aipatzen ditugun bezala, era berean herri eta auzoetan administrazioek bultzatutako harrera plan integralak egon behar dira. Egokia eta beharrezkoa litzateke eskolan, eskolaz kanpoko jardueretan eta

aisialdian parte hartzen duten eragileek elkarlanean aritzea atzeritar jatorria duen ikasleriarekin.

**Administrazioak,** behar besteko baliabideen ekarpena eginez, benetako doakotasuna bermatu behar du ikastetxe guztietan, jatorrizko baldintza ekonomikoek eragotzi ez dezan ezein ikasleren sarrera ezein ikastetxetan.

Administrazioak, arreta emango die profil sozioekonomiko baxuena duten eta bazterkeria arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei.

Irizpide hauetan oinarriturik, edozein ikastetxek, dagoen eskola eremuan, edozein beharrezko bidezko ikaslearen eskolaketan bere matrikulazio-tasaren neurriko konpromisoa hartu behar du eta horrela ez balitz neurri administratibo zuzentzaileak aurreikusita egon beharko dira. Beraz hezkuntza-itunak eman edo berriztatzea eta beste laguntza publiko batzuk lortzea baldintzatuta egongo da.

## HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

### 9. Gobernantza demokratikotik antolatua

Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.

**Euskal herritar** orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa...) bermatuz, eskola komunitatearen aniztasuna kontuan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea gauzatzuz, eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea bermatuz.

Formula juridiko bat edo besteren gainera, ikastetxeen erabaki organoetan hezkuntza komunitateko partaideek elkarrekin erabakiak hartzeko benetako partaidetza lortzea da helburua.

Helburu hori lortzeko Autoeraketaren praktika da gizarte eraldaketaren espresio garbiena eta sakonena. Dimentsio publikoa eta merkatuaren logikaren aldean, komunitate logiketatik, herritarren arteko elkar lotura

horizontaletatik, eratortzen diren beste balio batzuk (elkartasuna, lankidetzaz, auzolana...) bultzatzen dituen praktika da, egungo gizartearen nagusi diren bi logika soil hauetatik (merkatua eta estatua) ihesi.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren jabea hezkuntza-komunitate osoa bada, haren kudeaketa partaidetzan eta demokrazian oinarritu beharko dugu:

**Barrura begira**, eskola osatzen duten estamentu guztien titulartasun konpartitua bultzatu, beti ere, estamentuen erantzukizun eta ardura-banaketa adostuan oinarriturik.

- Sektore guztien partaidetza eta erabakitze-ahalmena formula adostuetan oinarrituko dira.
- Ikastetxeen organo nagusiak demokratikoki antolatu beharko dira.
- Barne-araudiaren egikera ere irizpide hauetan oinarrituko da.

**Kanpora begira**, honelako planteamendu batek **Estatuaren** eta Eskola-Komunitatearen arteko deliberamendu elkartua suposatzen du, erabakiak hartu eta gauzatzekoan.

Partaidetzaren gaia oso argia da, baita haren abantailak eta onurak ere. Edonola ere, behar bezala gauzatzea ez da erraza. Partaidetza bultzatu nahi duten hezkuntza-erakundeetan ere oztopo nabarmenak agertzen dira; esate baterako: parte hartzen duten pertsona guztiak interes komunak izan behar dituzte; oinarritzko hezkuntza-proiektuaz adostasuna egon behar da; partaidetzarako jarrera egokiak (elkarrenganako begirunea, tolerantzia, aniztasunaren onarpenean, ...). Teknikoki ere beste era bateko arazoak sortzen dira (partaidetzak dedikazioa eta denbora eskatzen ditu, lantzen diren gaietako gaitasun teknikoak, ...). Baina oztopo guztien gainera, irizpide bat azaltzen da, berez eztabaidagarria izan daitekena: partaidetza erakusten den erantzukizun-mailarekiko proportzioan eman behar da. Irizpide honen arabera, partaidetzarako aukera desberdinak aipatzen dira: argibidea

ematetik (ahulena) autogestioara (sendoena). Mailakatze honetan egon daiteke gako.

Kudeaketa-arlo honetan udalen partaidetzaren beharra ere aipatu behar dugu, zerbitzu publiko baten egituran protagonismo handiagoa hartu beharko bailukete. Partaidetza honek zerbitzuari gertutasuna eta aberastasuna emango lizkioke, tokian tokiko hiritarren beharraz ondoen jabetzen den erakundea izanik.

Partaidetza eta kudeaketa demokratikoa egon behar dira hezkuntzako zerbitzu publikoaren oinarrian. **Estatuak** bereziki zaindu beharko luke ikastetxeen antolamendu demokratikoa.

Gaur egun ikastoletan, eskola komunitateko kideak orokorrean eta ikastola guztietako gurasoak, bereziki, legez "proiektuaren jabeak" dira; partaidetza legez bermaturik dute erabakietan, ikastolaren titularrak baitira. Indargune hori baliatu behar dugu, partaidetzarako molde berriak ere indartzeko, ereduaren ezaugarriak baliatzeko.

Atal honetan eginiko azterketaren arabera, partaidetza titulartasun berritua eraikitze bide edo prozesu bilakatzen da. Horretaz gain, ikas-irakas prozesuan kokaturik, "familiek hezkuntza arloko prozesuetan eta emaitzen ebaluazioan erabakimenez parte hartzen dutenean, seme-alaben apendizai nabarmen hobetzen dela" frogaturik dago.

Ondorioz, alde guztien erantzukizun eta ardura-banaketa adostuan oinarriturik, ikastetxea osatzen duten estamentu guztien titulartasun sozialki partekatua bultzatu nahi bada, partaidetza eta erabakitze-ahalmena ere sektore guztien eskutik oinarritu beharra dago, formula adostu eta malguetan.

## 10. Ikastetxeei autonomia aitortuko diena

Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.

**Gaur egun** bakarrik autonomiatik uler daiteke ikastetxe baten funtzionamendua. Ikastetxeek autonomia izan behar dute eskolaturik dagoen ikaslegoari ahalik eta erantzunik onena eman ahal izateko. Autonomia sustatzeak ikastetxeei erabakimen handiagoa ematea eskatzen du, baina baita emaitzak lortzeko ardura handiagoz jokatzear ere, beren proiektuak garatu ahal izan ditzaten, beren ingurunera egokituta eta berezitasun sozial, geografiko, linguistiko eta kulturalen arabera. Autonomiaren bitartez, irakasleen eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzea eta erantzukidetasuna areagotzen dira. Autonomiak ondorengo onurak ekarriko dizkio ikastetxeari/zerbitzu publikoari:

- Inguruarekiko lotura zuzenagoa.
- Gizartearen partaidetza.
- Pedagogia beharizan zuzenekiko erantzun eraginkorra.

- Aniztasunean oinarrituriko kudeaketa.
- Ikasleen integrazioarako tresnaren egokitsuna.
- Kalitatea.

Partaidetza eta erabakitzeko ahalmena, hau da, autonomia, elkar sendotzen duten kontzeptuak dira. Ikastetxearen autonomiari lotuta, garrantzitsua da eskola bakoitzak nortasun instituzionala izatea, eta, horretarako, beharrezkoak dira segidako ezaugarriak:

- Hezkuntza komunitateak elkarren artean eztabaidatutako eta landutako hezkuntza proiektua izatea.
- Balioak partekatzen dituen komunitate bat egotea.
- Gurasoen parte-hartze aktiboa.
- Talde espiritua existitzea, hau da, emaitzen aurrean erantzukizun komuna egotea.
- Antolamendua eta funtzionamendua biziak eta arinak izatea.
- Irakasleek maniobra marjina zabala izatea eta etengabe prestatzen aritzea.
- Plangintza eta koordinazio kurrikularrerako lan zorrotza egitea, ikasleen etengabeko ebaluazioa barne.
- Baliabideen kudeaketa parte-hartzailea izatea.

Ikastetxeen autonomia ezin da hezkuntza proiektua definitzera mugatu, eta bere ondorioak hainbat ataletara eraman ahalko dira.

Ikastetxeak autonomoak izan behar dira bere hezkuntza proiektua egiteko eta garatzeko, hezkuntza-eskaintzan, ikasle taldeen antolaketan, curriculumeko jardueretan, egiten den denboraren erabileran, ikasteko eremuetan eta baliabideetan, edo, oro har, aurreikusitako ikasgaiena ez den beste ordutegi-antolaketa bat dakarten proiektu didaktikoen garapenean. Era berean, Ikastetxeek erabaki behar dute beren antolaketa egitura, beren hezkuntza-proiektuetara hobekien egokitzen dena aukeratzu.

Arlo kurrikularrean, administrazioaren eskuetan egon behar dira curriculumaren zenbait elementu (ikaslearen irteera-profila eta



oinarrizko kompetentziak lortzea). Edukietan mugatua egon behar da administrazioaren eskumena, nahiz eta hauek preskriptiboak izan; beste hainbat esparru ikastetxeen eskuetan geratu behar dira, eta, horietan, administrazioaren jarrerak orientatzaile izan behar du: edukien zehaztapenak, ebaluazio-irizpideak, lorpen-adierazleak.

Hezkuntzako langile guztien kontratazioak hezkuntza eragileen parte-hartzea bermatuko duten ikastetxe bakoitzeko batzordeetan egingo dira, berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesuen bitartez. Era berean, kaleratzeen kasuan ere hezkuntza eragileen parte-hartzea eta kontraesaneko espediente bat izatea bermatuko dira. Hautaketa prozesuaren faseak (deialdi publikoa, ikastetxe bakoitzaren baremazioa...) publikoak izango dira eta aukeraketa organoak ikastetxeetako estamentu guztien parte-hartzearekin osatuko dira.

Eskolaren azpiegiturei buruzko erabakiak ikastetxeak berak hartuko ditu, baina funts publikoak erabiltzea dakarten heinean, administrazio publikoek ikuskatuko dituzte. Era berean, ikasgelak zabaltzeari buruzko erabakiak ikastetxearen eskuetan egongo dira, baina administrazioaren baimena beharko dute. Azken finean, ikuskatutako ikastetxeak izango dira; administrazioaren plangintza orokorraren barruan aritu beharko dute eta beren kudeaketa ekonomikoa, gardena izateaz gainera, aldizka administrazioaren kontrolpean jarriko dute.

Autonomia garatzeak berekin dakar ikastetxeari buruzko erabakietan hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko eta, era berean, erantzukizunak banatzea hezkuntza komunitatearen, administrazioaren eta gizartearen artean. Horretarako, autonomia areagotzearekin batera, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea handitu behar da eta kontu emate kultura hedatu.

Kontuak emateko kultura horren barruan, ezinbestekoa izango da ikastetxeek administrazioari informazio publikoa eta gardena ematea, haiei emandako baliabideak nola erabiltzen diren jakiteko, bai eta

haiekin lortutako emaitzak balioesteko ere, kontuan hartuz inguruko gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta hizkuntzaren eragina.

**Zertarako autonomia?** Zertarako titulartasuna? Ikastetxearen erabaki nagusiak hezkuntza komunitatearen eskuetan egoteko; hau da, hezkuntza proiektua egiteko eta garatzeko, bere barne antolaketa definitzeko, bere baliabideen kudeaketa propioa izateko, langilearen kontratazioa ikastetxe bakoitzeko batzordeen bitartez egiteko (hots, langileak ikastetxeetako izateko)...

Hezkuntza izango da gure herriak izango duen erronka handienetako bat, bai, hausnartzekoa da ze punturaino AUTONOMIA errazten duen edo ez berrikuntzarako prozesuak abiatzearena.



## 11. Publiko-herritar eredutik sortua

Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituenak.

**Publikotasuna** "publiko-herritar" ikuspegian kokatu dugu azken aldian, ikastetxearen titulartasunaz harago, komunitateari lotua, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatzeko. Ikastetxe bat publikoa izateko ez da ezinbesteko baldintza administrazioaren titulartasuneko izatea.

**Estatuak** gertu egon behar du komunitate logiketatik sortzen diren ekimenetan laguntzeko, ekimen hauekin dinamika orekatu bat eraikitzeko eta erabakiak adostasunez hartzeko. Are gehiago, prest egon behar du onartzeko hainbat zerbitzu publiko irabazi asmorik gabeko gizarte ekimen zibilek kudeatzeko. Beti ere, bai elkartearentzat eta bai gizarte osoarentzat onuragarriak diren xede sozial

garrantzitsuen alde lan egin behar dute ekimen horiek. Haatik, aldi berean, gizarte zibilak garatzen dituen ekimen horiek **Estatuaren** baimena eta ikuskapena behar dute, eta, gainera, zerbitzu publikoen kudeaketaz ari denez, programatzeko eta koordinatzeko eskumena ere badagokio. Hau da, erakunde horiek administrazioaren plangintza orokorraren esparruan jardun behar dute.

Izaera sozial nabarmena duten ikastetxeak, irabazi asmorik gabekoak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren parte lirateke.

Gainera, beste zenbait ezaugarri izan beharko lituzkete:

- Oinarritzkoena, ikasle guztiak onartzea eta heztea, bazterkeriarik gabe.
- Demokratikoi kudeatuta egon behar dira, Hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztien partaidetza eta erabakitze-ahalmena guztien esku egon behar da eta erabakitze organo nagusiak demokratikoki antolatuak izango dira.
- Autonomoak izan behar dira: beren hezkuntza proiektua egiteko eta garatzeko, beren barne antolaketa definitzeko eta beren baliabideen kudeaketa propioa izateko, aurrekontu propio bat edukita.
- Eskola inklusiboa izan behar da. Ikasle guztien aukera berdintasuna (konpentsatzailea), hezkidetzat, inklusibitatea eta gizarte kohesioa sustatze eta bermatzearekin batera bere ikasle guztien eskola errendimendua hobetzeko plangintza zehatza izan behar du. Ikastetxeak ardura du beharrezko baldintzak sortzeko. Baldintza horiek lotuta daude ikasle guztien garapena, ikaskuntza eta partaidetzarako hezkuntza-erantzunak erraztu eta ahalbideratzen dituzten espazio sozialekin.

- Jasotzen dituen funts publikoen erabilera adieraziko du, euskal hezkuntza-sistemak ezarritako hezkuntza-helburuak aintzat hartuz eta gardentasunez erabiltzeko konpromisoa hartuz. Bigarren konpromiso hau betetzeko, kontuen ikuskaritza egingo dute, eta ikuskaritza eskatzeko eskumena duten organoen aurrean aurkeztuko dute.
- Ideologikoki anitza eta laikoa; Ikastetxeak baztertu egin behar du "doktrinamendu" jarrera eta elkarrizketa eta elkarrenganako begirunea sustatu behar ditu. Eskola baten irekitasunak eta aberastasunak ideologia desberdinen integrazioan dute adierazle garrantzitsuenetako bat.
- Ikastetxearen funtzionamendua ezagutu/hobetzeko, kanpoko eta barruko ebaluazio-prozesuak egingo ditu: hezkuntza-helburuen egokitasuna neurtzeko, ikasleen gaitasun, erritmo eta beharretara egokitutako ebaluazioa egingo du, irakasteko eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak sustatzera bideraturik, ikasle bakoitzaren ahalik eta hezkuntza garapen handiena lortzeko, bere autonomia zainduz eta autoebaluazioa landuz; halaber, hezkuntza-sisteman erabiltzen diren baliabideen erabilpena aztertzeke eta lanbide jarduera hobetzeko, Zuzendaritza-funtzioaren eta Irakasle-funtzioaren ebaluazioak egingo ditu.
- Hezkuntzako langile guztien kontratazioak hezkuntza eragileen parte-hartzea bermatuko duten ikastetxe bakoitzeko batzordeetan egingo dira, berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesuen bitartez. Era berean, kaleratzeen kasuan ere hezkuntza eragileen parte-hartzea eta prozesu kontraesankor bat izatea bermatuko dira. Hautaketa sistemaren fasek (deialdi publikoa, ikastetxe bakoitzaren baremazioa...) zehaztuta egongo dira.
- Murgiltze ereduaren bitartez, derrigorrezko eskolatze prozesua bukatzerakoan ikasle euskaldun eleaniztunak bermatzeko helburua izango du..

- Ekonomia ekitaldi batean emaitza positiborik sortuz gero, diru hori ikastetxea hobetzeko edo/eta zeregin sozialetara bideratzeko erabilko da. Elkarte titularra desagertuz gero, bere ondarea hezkuntza administrazioaren eskuetan geratuko da.
- Beti ere administrazioak baimendu eta ikuskatutako ikastetxeak izan behar dira, administrazioaren plangintza orokorraren barruan aritu beharko dira eta beren kudeaketa ekonomikoa, gardena izateaz gainera, aldizka administrazioaren kontrolpean jarriko dute.

**Zertarako titulartasuna?** Ikastetxearen erabaki nagusiak hezkuntza komunitatearen eskuetan egoteko, hau da, hezkuntza proiektua egiteko eta garatzeko, bere barne antolaketa definitzeko, bere baliabideen kudeaketa propioa izateko, langileriaren kontratazioa ikastetxe bakoitzeko batzordeen bitartez egiteko (hots, langileak ikastetxeak izateko)...